

CARITASEN KANPAINA

«*Erdu!*»

2020ko ABENDUAREN 20a

ABENDU ALDIKO IV DOMEKA (B)

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Lagungarri honeek liturgiako talde eragilearen esku iztea komeni da.
- ✿ Lagungarriak aurrerapenez prestatu doguz. Ez ahaztu, kanpaina egiten danean Jainkoaren herriaren otoitzean sartzea egoki dan gertaerak izan daitezela.
- ✿ Ezinbestekoa da liturgia lagungarriekin batera bialtzen doguzan materialak irakurtea kanpainaren senaz jabetzeko.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Abendu aldiko laugarren domeka honetan, Maria Birjina dogu protagonista nagusi, Deikundearen pasarte ebanjeliko eder eta sakonean. Jainkoaren aukeraketa, grazia, doe eta osotasun da.

«Alkar zaintzen daben familiak». Horra hor Caritasez mezua Gabonen atarian. Alkarren menpeko gara eta aurrera egin behar dogu zainketen gizarteari begira. Familia, funtsezko zutabea da, eta pandemiak eragindako krisialdian ikusi dogu: Familiak hazi egin dira kalera irten ezinik egozan auzokide nagusiakaz, pertsona ezinduakaz, lanera joan behar eben pertsonakaz, beste batzuk euren ardurapean eukiezanakaz edo hilaren azkenera heltzen ez ziranakaz. Besteekiko lokarriak ahultzen diranean, familia eta alkartea bihurtzen dira euskarri kanporatuta sentitzen diranentzat.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Gu salbatzera datorren Jesukristo gure Jaunaren maitasun eta itxaropena, zuekin.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

«*iTe invito!*»

20 de DICIEMBRE de 2020

IV DOMINGO DE ADVIENTO (B)

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- ✿ Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- ✿ La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Dentro del Adviento, en este cuarto domingo, la Virgen María nos llega a través del bello y profundo pasaje evangélico de la Anunciación. La elección de Dios es siempre una gracia, un don, algo que plenifica.

«Familias que se cuidan». Es el mensaje de Cáritas en este domingo a las puertas de Navidad. Somos interdependientes y necesitamos avanzar hacia una sociedad de los cuidados. La familia es un pilar fundamental y lo hemos visto en este tiempo de crisis por la pandemia donde las familias han crecido con los vecinos y vecinas mayores que no podían salir a la calle, con las personas discapacitadas, con las que tenían que ir a trabajar y tenían personas a su cargo o las que no llegaban a final de mes. La familia y la comunidad, en momentos en donde la vinculación con las demás personas se debilita, se vuelven soporte para quienes se sienten expulsadas.

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El amor y la esperanza de Jesucristo, el Señor, que viene a salvarnos, estén con todos vosotros.





KOROAREN ZEINUA ETA DAMU OTOITZA

Abendu aldiko azken domeka honetan laugarren kandela biztean, Maria, Jainkoaren egitas moari behin betiko «baiezkoa» emon eutsan emakumea gogoratuko dogu. Bere irrika, bere samurtasuna, bere maitasuna geure eginez, geuk be «baiezkoa» emongo dogu, Mariaren konpromisoagaz bat eginez. Zatoz bizkor, Jauna, gu salbatzera!

Laugarren kandela biztu.

– Ilunpetan bizi diranei argi egitera zatozan munduaren argia:

Erruki, Jauna.

– Zeure herriari zuzentasunezko bideak zabaldugura deusazuzan gizadiaren gidaria:

Kristo, erruki.

– Gure ahultasun eta zauriak sendatzera zatozan biziaren iturria:

Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (2 SAM 7,1-5. 8-12. 14-16)

Kontaketa honen arabera, Davidek tenplua eraiki gura deutso Jainkoari bere leinua sendotzeko. Baina Jainkoak egiten deutso etxea erregeari eta bere herriari.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (ERM 16, 25-27)

Paulo apostoluaren hausnarketa sakona entzungo dogu bigarren irakurgaiari: Ebanjelioa, gizadiarentzako barri ona dala hots egingo dau.

EBANJELIO (LK 1,26-38)

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Bat egin daigun otoitzean, Jainkoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu daian.

1. Bere itzalaz Maria estali eban Espiritu Santuak adore emon deiola Eleizari, garapen gizatiar eta jasangarria sortzeko pertsonen, izadiaren eta hartu-emonen zainketa lehenetsi daian.

Eskatu deiogun Jaunari.

GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Al encender la cuarta vela en este último domingo del Adviento, pensamos en María, la mujer del «Sí» definitivo al plan de Dios. Con su misma ansia, con su misma ternura, con su mismo amor, acompañamos con nuestro propio «sí» el compromiso de María, ¡Ven pronto, Señor. Ven a salvarnos!

Se enciende el cuarto cirio.

– Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas:

Señor, ten piedad.

– Guía de la humanidad, que quieres abrir a tu pueblo sendas de justicia:

Cristo, ten piedad.

– Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad:

Señor, ten piedad.

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (2 SAM 7,1-5. 8-12. 14-16)

Según el relato de la primera lectura, David quiere levantar un templo a Dios para fortalecer su dinastía. Pero es Dios quien hace una casa para el rey y para su pueblo.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (ROM 16, 25-27)

En la segunda lectura, se nos ofrece una profunda reflexión del apóstol Pablo, quien proclama que el Evangelio es una buena noticia para la humanidad.

EVANGELIO (LC 1,26-38)

ORACIÓN UNIVERSAL

Unámonos en la oración para que el Hijo de Dios renueve el camino de la humanidad entera.

1. Que el Espíritu Santo, que cubrió a María con su sombra, infunda valor a la Iglesia para que avance a ser una comunidad que sitúe en el centro el cuidado de las personas, de la naturaleza y de las relaciones, como elemento clave para generar un desarrollo humano y sostenible.

Roguemos al Señor.



2. Caritasek eta pobretasunaren aurka eta zuzentasunaren alde jarduten dabenek sendo iraun daiela euren konpromisoan, eta euren lekukotasunari esker alkartasunez betetako Gabonak bizi daiguzala.

Eskatu deiogun Jaunari.

3. Frantzisko aita santuak dinoan lez, familia gertuko eremua izan daitela eta bertan “Jainkoaren doe dan bizia onartu eta eraso guztietatik babestu daigun, benetako giza hazkunderako garatu daiten”.

Eskatu deiogun Jaunari.

4. Herrietako agintariak gizon eta emakume guztion duintasun eta eskubideen alde jardun daiela eta bideak jarri daiezala ongizatea azkenei be eroateko.

Eskatu deiogun Jaunari.

5. Kristau alkarteak eta berau osatzen dogunok gizatasun eta zuzentasunez betetako gizartea eraikitzeko dogun erantzukizunaz jabetu gaitez.

Eskatu deiogun Jaunari.

Zatoz, Jauna, eta kontsoletu atsekabetuak, sendotu zure atzetik jarraitu gura dogunok, argitu eza gutzen ez zaituenak eta bihotz-barritu euren norberekoiherian itxita bizi diranak. Errege bizi zara eta gizaldi eta gizaldietan.

Oi Jainko, gure betiereko artzain eta gidari zarena; zure erruki mugagabez, emoiozu gure Eleizbarrutiari zure bideei jarraituko deutsun artzaina, eta bere pastoral ardura jagolearen bidez, zure bedeinkazinoa jaso daigula.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Caritasek ezinbestekoa dau gure diru-laguntza baztarketa latza jasaten dabengana, azkenengana iritsi ahal izateko. Caritasen bazkide egitea da gure konpromisoa zehazteko eta pobretasunaren aurkako konponbidean eskuhartzeko bideetako bat. Keinu txikiak be garrantzia dauka. Gaur batu daiten diru guztia Eleizbarrutiko Caritasen esku itziko da. Eskerrik asko alkartasunez jokatzegaitik.

2. Que Cáritas y quienes trabajan contra la pobreza y a favor de la justicia se mantengan firmes en su compromiso, y su testimonio nos impulse a vivir una Navidad más solidaria.

Roguemos al Señor.

3. Que, con palabras del papa Francisco, la familia sea el espacio cercano “donde la vida, donde Dios, puede ser acogida y protegida de manera adecuada contra los múltiples ataques a que está expuesta, y puede desarrollarse según las exigencias de un auténtico crecimiento humano”.

Roguemos al Señor.

4. Que quienes tienen la misión de gobernar los pueblos apuesten por la igualdad de todas las personas en dignidad y derechos y hagan posible que el bienestar llegue también a los últimos.

Roguemos al Señor.

5. Que cada comunidad cristiana y quienes las formamos tomemos conciencia de la responsabilidad que tenemos todas las personas para construir una sociedad más humana y justa.

Roguemos al Señor.

Ven, Señor, y da tu consuelo a los afligidos, tu fuerza a quienes queremos seguirte, tu luz a cuantos no te conocen y un corazón nuevo a quienes viven encerrados en su egoísmo. Tú, que vives y reinas por los siglos de los siglos.

Oh, Dios, Tú que eres nuestro eterno pastor y guía, por tu misericordia infinita concédele a nuestra Diócesis un pastor que siga tus caminos y que por su vigilante dedicación pastoral recibamos tu bendición.

Por Jesucristo nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Cáritas necesita nuestro apoyo económico para poder seguir llegando a las personas en situación de mayor exclusión, a las últimas. Una forma de concretar nuestro compromiso y ser parte de la solución contra la pobreza es ser socio de Cáritas. Cada gesto cuenta. La colecta de hoy será íntegramente destinada a Cáritas Diocesana. Gracias por vuestra solidaridad.

JAUNARTZE OSTERAKO HAUSNARKETA

«Heriotzaren kultura deitutakoaren aurka, familian datza biziaren kultura». Familian lantzen dira lehenengo ohiturak maitatzeko eta bizia zaintzeko, esate baterako, gauzak zuzen erabili, ordena eta garbitasuna, lekuko ekosistemaren errespetua eta sortutako izaki guztien babesa. Familia, osoko heziketaren lekua da, bertan garatzen dira alkarren artean estu lotuta dagozan heldutasun personalaren alderdi guztiak. Familian, inor zapaldu barik baimena eskatzen ikasten da, “eskerrik asko” esaten jasoten doguzan gauzak bihotzez baloratuz, oldarkortasuna edo irentsi nahia menderatzen eta parkamena eskatzen min emoten dogunean. Gizalegezko keinu txiki honeek bizikidetzaren eta inguruko aldeko errespetuaren kultura eratzen laguntzen deuskue.

(Laudato si. Frantzisko Aita Santua)

REFLEXIÓN DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

«Contra la llamada cultura de la muerte, la familia constituye la sede de la cultura de la vida». En la familia se cultivan los primeros hábitos de amor y cuidado de la vida, como por ejemplo el uso correcto de las cosas, el orden y la limpieza, el respeto al ecosistema local y la protección de todos los seres creados. La familia es el lugar de la formación integral, donde se desenvuelven los distintos aspectos, íntimamente relacionados entre sí, de la maduración personal. En la familia se aprende a pedir permiso sin avasallar, a decir «gracias» como expresión de una sentida valoración de las cosas que recibimos, a dominar la agresividad o la voracidad, y a pedir perdón cuando hacemos algún daño. Estos pequeños gestos de sincera cortesía ayudan a construir una cultura de la vida compartida y del respeto a lo que nos rodea.

(Laudato si. Papa Francisco)




Caritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao